

2008ko apirilaren 23an UDALBATZAK EGINDAKO BILKURA EZ-OHIZKOAREN AKTA.

4. Zk.

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 18,30tan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik. Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: IGOR ITURAIN IBARGUREN
ZINEGOTZIAK : 1.- MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAOLA
2.- MAITANE ARRILLAGA ALDALUR
3.- ANDER ARRILLAGA ALBENIZ
4.- MARI KARMEN EGURZA AGIRRE
5.- BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL
6.- NAIARA ESNAL HUEGUN
7.- ANTXON GOMEZ LORENTE

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aurreko Akta onartu .

Idazkariak idatzitako 2008ko apirilaren 7ko Akta onartu da.

2.- “ Landabus” garraio publikoaren programa berritzaileari buruzko hitzarmena onartu eta Alkatea ahalmenu berau izenpetu dezan

Alkateak aldez aurretik helerazi zien batzarkideei hitzarmena osotasunean. Beraz, aztertzeo aukera izan dute zinegotziek.

Maitane Arrillaga zinegotziak adierazi du hobekuntza bat suposatzen duen neurrian ondo iritzi diola programari. Eta nahiz eta programa hau esperientzia berritzaile gisa planteatu, azaldu nahi izan du, ekonomikoki onurarik ekarriko ez balu ere, aurrera begira, zerbitzu honi eutsi beharko litzaiokela. Honen arira, gehitu du urtebeteko epeari eskas samarra deritzola, emaitzak ikusi aldera. Eta azkenik,

bere ustez, berandu gauzatu dela ekimen hau azpimarratu nahi izan du, eta ondorioz, iada herritar askok motordun ibilgailu partikularrekiko menpekotasun edo ohitura handia izanik, zailagoa da hau desagertaraztea.

Alkateak honako erantzuna eman du arestian azaldutako gaiak direla eta:

- 1) Errentagarritasun ekonomikoa ez da Landabus programaren irizpide nagusia
- 2) Urtebeteko epeari, oraingoz nahikoa iritzi dio, kontuan izanik esperientzia berritzaile eta “frogapekoa” edo “pilotua” dela.
- 3) Urtebeto epealdi horretan herritarrek emandako erantzunera egokitu beharko da edonola ere eskainitako zerbitzu publikoa
- 4) Berandu hartutako ekimena dela onartu arren, gogorarazi du Gipuzkoa mailan lehena dela.

BOZKETA: Alde: 8 bozka

AKORDIOA: Udalbatzak, aho batez, onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde antolakuntza eta garraio sailarekin “ Landabus” garraio publiko zerbitzuari buruz hitzarmena izenpetu ahal izatea, horretarako, Alkatea ahalmenu duelarik.

3.- Tokiko agenda XXI

Alkateak laburbildu du idatzizko orri batean Tokiko Agenda XXI barruan zein jarduera bideratu nahi diren, Urola Kosta Mankomunitateak proposatutako ildoari jarraiki.

Antxon Gomez zinegotziak honako puntuak aipatu ditu motz-motzean:

- 1) Merkataritza: herriari begira egindako merkatal jarduera txikiak bultzatu, animatu edo hobetsi behar lirateke.
- 2) Euskara: merkatal egoitzetan euskara bultzatu behar litzateke. Esate baterako, jatetxe zein tabernetako menu zein karta nola orri hala oharrak euskaraz eta gaztelaniaz ezar daitezzen.
- 3) Pagoeta Parkea: Hainbat puntu zerrendatu ditu, besteak beste, hauek:
 - Kudeaketa plana ez da ezarri
 - Koordenazio eza udalerrien artean
 - Patronatuaren motelkeria
 - Web orria: bizigarritasun edo erakargarritasun txikikoa

- 4) Mankomunitatea: Ohar hauek mahaigaineratu ditu.
- Hauteskundetan izandako bozka benetakoa ez du islatzen Mankomunitateak erakunde gisa eta legezkonpoko egoera hau kontrajarria dago eredu partehartzaileekin. Alkateak iruzkin honen aurrean oroitarazi du herritar soilen artean partaidetza bultzatzeko tresnak jarri izan dituela mankomunitateak
 - Erabakitzeko ahalmena duten foroak indartu beharra.
- 5) Etxebizitza dela eta, izaera publikoa dutenak eta alokairuan lehenetsi beharra
- 6) Auzoak. Elkano eta Urdaneta auzoen “utzikeria” egoera azpimarratu du. Alkateak ohar hau dela eta, bilerak auzoka urtero egin izan dituela oroitarazi du eta honi eskerrak zuzenean jaso izan ahal izan dituela auzokideen kexa zein iradokizunak.
- 7) “Asoziazio” edo “elkarte” espiritua bultzatu beharrari garrantzia eman dio, batez ere, gazteen artean. Izan ere, egun, “festa batzordea” bakarrik omen dago elkarte gisa antolatua. Alkateak gogoan izan du guraso-elkartea, ekimen handikoa delakoan eta goraipatu nahi izan du, biztanle kopurua kontuan izanik herritarren partaidetza herriko jaialdi zein ekitaldietan handia dela. Hala ere, “dinamizatzailer” funtzioa egiten duen eragile bat behar litzatekela onartu du.

BOZKETA: Alde: 5 bozka; aurka: 0; abstentzioa: 3

AKORDIOA: Udalbatzak, gehiengoz, onartu du “Tokiko Agenda XXI” eta ondorioz, planaren barruan aurrikusitako ekitaldi, ekimen, plangintza eta helburuak.

Bilera bukatu da eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, idazkariak idatzi eta bertaratutakoek onartu eta izenpetu dute, Aian 2008ko uztailaren 7an.

IGOR ITURAIN IBARGURENek

MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAOLak

MAITANE ARRILLAGA ALDALUREk

ANDER ARRILLAGA ALBENIZEk

ANTXON GOMEZ LORENTEk

MARI KARMEN EGURZA AGIRREk

NAIARA ESNAL HUEGUNEk

BITTOR SANCHEZ MENDIZABALEk

Idazkari-kontuhartzaileak.